

Noaia!!

www.noaia.com



Urriaren 12an,
Euskal Jaia Zubietan



Etxean geratu zen Bandera

Marka berriak
aurkituko dituzu!

skunkfunk

emerillolimon

PRIVATA

Marije
Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

USURBIL

OPTIKA

943 370 269

USURBIL OPTIKA

MERKEALDI

10% - 20%

El deber de provocar

50€-ko
BALEA

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)


-%40

UMEEN
BETAURREKOETAN
AUKERA EDERRA!!!

Zubiaurrenea 10 USURBIL

943 370 269 eta 675 708 654

Auto Guria

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)

943 363 298 • Faxe: 943 363 862

PSU

serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Albisteak iruditan !!

80 urte bete dituztenei omenaldia egin die Gure Pakeak

Irudikoak, aurten 80 urte bete dituzten herritarrek ditugu. Urtero legez, adin kopuru horretara iristen direnei omenaldia egiten die Gure Pakea Elkarteak. Plaka moduko bat eman zitzaizen eta gero erretraturako elkartu ziren Atxega jau-regiko atarian. Mezatan bildu ziren lehenik, eta gero, bazkari eder baten bueltan elkartu ziren aipaturiko jate-txean.



BAZKAL AURRETIK MEZAN IZAN ZIREN GURE PAKEAKO KIDEAK.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

Aio EGA, aio?

Azken egunotan irakur zitekeenez, aurrerantzean Aikasaiaen erdia euskaraz ikasten duenak, ez du bere euskara maila tituluekin frogatu beharrik izango. Eusko Jaurlaritzakoen aburuz, besteak beste, ez da normala administrazio publiko bateko lanpostu bateko lehiaketara aurkeztean, herritarrei bere hizkuntza ofizialeko agiria aurkeztea exijitzea.

Aldaketak D eta B ereduetan ikasi dutenei eragingo die eta ikasle askoren injustiziarekin amaituko dela diote, baita ikasle askok eginiko ahaleginekin ere. Ep!!! Itxaron pixka bat. Orain konturatu naiz, D eta B ereduak parekatzen dituzte, batean edo bestean ikasteak euskara modu berean menderatzen laguntzea bermatuko balu bezala. D eredukoek EGA eta antzekoen egin beharrik ez izatea, ados. Ez dut hain argi ikusten ordea, B ereduko kasuan.

Jarra dezadan albistea irakurtzen, eta ofizial hitzera doakit begia. Jaurlaritzakoen esanetan, beste behin, ofiziala dugu euskara, behinik behin, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Baina hara non, medikuntza joanez gero, alokairuko laguntzen gaineko informazio eske... Sarri entzungo dugun, onenean, edukazio osoz "mantsoago hitz egin euskaraz ikasten ari naiz eta" diotenak, eta okerranean, hobe ez aipatzea. Betikoa, ez da nobedadea. Euskara maila nork frogatu eta nork ez, horri buruz dihardute Jaurlaritzako zenbat sailburuk. Baina euren eskatu ote diete EGA? Kuriositatez... ba ote dute? Kargua hartzean frogatu ote zuten euren euskara maila? D edo B ereduetan ikasi ote dute? Azterketa soziologiko sakon baterako lana emango luke.

Bitxia ezta? Hedabideen aurrean bi hitz egiteko baino euskara ahotan hartzen ez dutenengandik iritsi zaigu albistea. Eurak euskarari loturiko legeak bultzatzen, agintean egonik eta euren esanetan euskara ofiziala izanagatik, euskara menderatsetik urrun samar daudenean. Paradoxikoa. "Niri eskatzea nahi ez nuena, besteei ere ez diezaietela eskatu", horixe datorkit burura, sozialistek egin duten iragarpenarekin. Edo euskaldun zaharrak berenganatzeko estrategia bat ere izan liteke; "lege honekin euskaldun zaharrak poztuko dituk/n eta euskararen gorabeherekin, hartara ez zaizkiguk/n hainbeste kexatuko". Kendu beharrekoa kentzeko legea egokia izan liteke kasu honetan. Noizko ordea, erakunde beretik eta euskarari dagokionean, herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko eskaini beharrekoa eskaintzeko legedia?

Neure azken hitzak, bat baino gehiagoren oroimenean gordeak egon diren hainbat bizipen gogora ekartzeko. Zenbat eta zenbat euskaldun zaharren haserrea, txikitatik euskaraz hitz egin, idatzi... Euskaraz bizi, eta EGA ezin zutelako atera. Zenbat tripako min!!! Negozio hutsa besterik ez zela, euskalduna izan eta demostratzeko titulua atera behar izateko eskubiderik ez dagoela... Hala ibiltzen ginen gaizki esaka eta hala ariko ziren hamarkada hauetako hainbat eta hainbat herritar. Ernegaturik, garrantzitsuena, betidanik ahotan izan zutena agiri batekin erakutsi beharra zegoelako.

Gero egunerokoan, euskaraz jakitea exijitzeko aukera dugun horiekin, erdaraz mintzatu beharra izan dugunengan.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Kukutzari elkartasuna adierazi dio ITAYAk

Irailaren 23an Bilboko Errekalde auzoko Kukutza Gaztetxea eraiten hasi zirela eta, biharamunean ateratako argazkia duzue ondokoa. Elkartasuna adierazteko ITAYA Gazte Asanbladako kideek Mikel Laboa plazan atera zuten atxikimendu argazkia. "Ametsak zutik dirau! Kukutza bizirik!" lemapean, Usurbilgo gazteek aurrera egiteko deia luzatu nahi izan zieten Kukutzakoei. Hauxe da, gazte asanbladakoek NOAUA!-ra bidali duten oharra: "Usurbilgo ITAYA Gazte Asanbladak ere Kukutza Gaztetxearen aurka eman diren azken hilabeteotako presio eta, batez ere, azken egunotako erasoan aurrean elkartasuna adierazi nahi diegu Bilboko Errekalde auzoko



ELKARTASUNA ADIERAZTEKO ARGAZKI HAU ATERA DUTE ITAYA TALDEKOEK.

gaztetxekoei eta auzokideei, hainbeste urtetan burutu duten lan izugarria azpimarratu eta txalotzeaz gain, aurrera egiteko indar guztiak bidali nahi dizkiogu

gaztetxeari, indarkeria erabiliz mapatik ikur handi bat ezabatu badute ere, gure bihotzetik KUKUTZA ez delako berehalakoan ezabatuko".

Udal giza baliabideak arrazionalizatzeko plana onartu da

Usurbilgo Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa onartu du gehiengo osoz Usurbilgo Udalak, Bildu, Aralar eta PSE-EE-ko ordezkarien botoekin. Abstentziora jo zuten EAJ-PNV eta Hamaikabat udal taldeko ordezkariak, joan den irailaren 27an burutu zen uda osteko lehen osoko ohiko bilkuran.

Pertsonal Batzordetik udalbatzara eramandako proposamena, diktamenean adierazten denez, "Usurbilgo Udaleko sei administrari laguntzaile, administrari izatera pasatzeko jarraitu beharreko barne sustapen prozesuaren ingurukoa" da. Aipatutako postuak honakoak dira: pertsonaleko, bilketako, hirigintza eta obretako, ongizateko, kultura, euskara eta gazteriako, eta zerbitzu eta obretako administrari laguntzaileak hain zuzen.

Udal talde politikoen eta zinegotzien ordainsariak
Zinegotzi bakoitzeko udal talde politikoei 1.200 euro eta beste 3.000 euro-



IRAILAREN 27AN ELKARTU ZEN UDALBATZA.

ko kopuru finkoa jasoko dute legegintzaldi berri honetan. Hala erabaki zuten gehiengo osoz joan den irailaren 27ko osoko ohiko bilkuran. Udal ordezkari guztiek babestu zuten proposamena, Hamaikabat udal taldekoak izan ezik, abstenitu baitziren.

Horrekin batera, osoko bilkura,

Gobernu Batzar eta Batzorde Informatzaileetako bileretara joateagatik, dedikaziorik ez duen zinegotzi bakoitzak 25 euroko ordainsaria jasoko du. Ordainsarion zenbatekoa udalbatza eratu zen egunetik, hau da, joan den ekainaren 11tik indarrean dagoela kontsideratzen da.

Konpostaje komunitarioa bultzatu nahi da herrian

Usurbilgo Udaleko Nekazaritza eta Ingurumen batzordeak jarri du martxan ekimen hau. Eta xehetasun gehiago azaltzeko asmoz, aurkezpen ekitaldia antolatu dute datorren ostegunean, urriak 13, 18:00etan Sutegin.

Udal iturrien arabera, Usurbilen ia 500 familiak etxean autokonpostatzen dute, 405 tona organiko herrian bertan hondakin izatetik ongarri izatera bilakatuz.

Hala ere, Usurbilgo Udalak herritarren laguntzarekin herrian konpostatzeko aukera hedatzeko asmoa du, konpostaje komunitarioa bultzatuz: "Horretarako ekimenen parte hartu nahi duten bizilagunei eremu publikoko gune bat egokituko zaio konpostatu ahal izateko, autokonpostatze bateratu bat egiteko aukera eskainiz, eta ondorioz



KONPOSTAJE KOMUNITARIO HONEN ANTZEKO BIDERATU NAHI DA.

hondakinen tasan %40-ko hobaria aplikatuz".

Egitasmoaren nondik norakoak eza-gutzeko, urriaren 13an osteguna, aur-

kezpen ekitaldia egingo dute Sutegin, arratsaldeko 18.00etan.

Bertaratzeko gonbitea luzatu zaie herritar denei.

Jose Maria Rivadeneyra Ingurumen eta Nekazaritza alorreko udal zinegotzia

“Moratoria gauzatzeko ahalmena badugu eta gure programan dagoenez, egingo dugu”

Hauteskunde aurretik iragarri moduan, Foru Aldundiko Bilduk errauste planta ez dela egingo adierazi berri du. Aurrera begira, moratoria eta hondakinen inguruko hausnarketa proposatzen dute. Egunotako adierazpenok ez dira oharkabea pasa. Gai honi eta lehen ehun egunak bete dituen lege-gintzaldiari buruz hitz egin du NOAUA!-rekin Jose Maria Rivadeneyra Bilduko ingurumen eta nekazaritza alorreko udal zinegotzi eta Hondakinen Kontsortzioko batzarkide hautatu berriak.

NOAUA! Aldunditik gaur egun planteatua dagoen moduan, erraustegi plantarekin ez dela jarraituko esan dute. Zeresana eman dutenez, adierazpenon esanahia argitzerik bai?

Jose Maria Rivadeneyra. Adierazpen horiek nahasmena sortu badute, hedabide batzuek adierazpen horiek zatika atera dituztelako da. Berez Aldundiak moratoria bat ezarriko dela azaldu du. Une honetan, abiatuta daude bi ildo; batetik, nola gauzatu moratoria hori ahalik eta modu txukunenean. Eta bestalde, nola diseinatu eta garatu erraustegiaren alternatiba diren azpiegiturak.

N. Adierazpenok, moratoriaren norabidean laster pauso berriak emango direla suposatzen dute?

J.M.R. Urrats konkretuak ematen hasteko, lehenago erakundeen kontrola hartu behar da. Erakunde berriak eratu behar dira; Mankomunitateak eta Hondakinen Kontsortzioa.

N. Mankomunitate batzuk oraindik osatzeko daude?

J.M.R. Hor dago arazoa. Ezin dugu hasi gauzak egiten, tramite batzuk atzeratzen ari baitira. Erakunde berrietan sartu arte, ezin ditugu erabakiak hartu. Adibidez, aurreko arduradunek presaka martxan jarri zuten makinaria burokratiko guztia gastuak eragiten ari da, hilerok. Horrek sortzen dit niri ezinegona eta hori gelditzeko, ahalmena oraindik ez dugu.

N. Batzuk kontraesan gisa uler dezakete, Aldunditik errauste plantaren egitasmoarekin aurrera ez dutela jarraituko esan eta egunerokoan, lanek hor jarraitzen dutela ikustea?

J.M.R. Praktikan ezin ditugu erabaki horiek hartu, eta halere, sangria hori geldiarazten saiatzen ari gara. Joan den astean, San Markoko lehendakariak idatzizko eskaera bat bidali zion Kontsortzioko lehendakariari, Administrazio Kontseilua bildu baino lehen errauste plantaren erakuntzarekin lotutako tramite guztiak bertan behera uzteko eskatu eta funtzioetan daudela gogorarazteko.

N. Kontsortzioko batzarkide ere bazara. Zertan da egun, errauste plantaren aldeko eta kontrako indar banaketa herrialdeko erakundeetan?

J.M.R. Erabaki exekutiboak hartzen dituen Kontsortzioan, gehiengo nagusia errauste planta onartzen ez duen taldeak du. Kontsortzioa zazpi Mankomunitateetatik sortzen da. Bostetan guk dugu gehiengoa eta horrek ziurtatzen digu gehiengoa Kontsortzioan ere. Udal askotan Bildu da nagusia, baina



HONDAKINEN KONTSORTZIOKO BATZARKIDE HAUTATU BERRI DUTE.

gutxiengoan dagoen udaletan edo erraustetaren aldeko taldeak daudenetan egoera konplikatu da. Gipuzkoa mailan indarra duten erakundeak bi dira; Kontsortzioa eta Aldundia. Aldundian Bildu dago gobernuan, eta gero Batzar Nagusiak daude. Bertan, gehiengoa erraustegiaren aldekoa da.

N. Indarren banaketa kontuan hartuta beraz, errauste plantako lanak geratu eta moratoria gauzatu ahaliko da?

J.M.R. Moratoria gauzatzeko ahalmena badugu eta hori denez gure programa, egingo dugu.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

J

JON ELORZA

IGELTSERITZA OROKORRA

Obrak eta erreformak

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

“Egoera normal batean, beste alternatiba bat abiatzeko lau urterekin denbora soberan dago”

NOAUA! Hedabideetan atera dira, errauste plantako lanek gelditzeak zenbateko gastua eragin dezaketen. Lanek jarraitzen dutenez, gastuak ere igotzen doaz?

Jose Maria Rivadeneyra. Zoritxarrez batzuek jarraitzen dute azken urteotako dinamika berberarekin. Hedabideak erabiltzen ari dira, desinformatu eta gizar-teari presioa egiteko. Harrigarriak dira irakurtzen diren datuak. Carlos Ormazabalek eta gero Denis Itxasok, ziotenez moratoria 158 milioi euro kostako da. Datuon berri emateko Kontsurtzioak eginiko txosten bat aipatzen zuten. Kontsurtziora joan eta txostena eskatu nuen, baina esan didate txosten hori ez dela existitzen. Auskalo nondik atera dituzten zifra hauek. Gainera, Ormazabalek zioen 100 milioi eurotik gora kostatzen zutela indemnitazioek eta 54 milioi euro kostako lukeela erraustegiaren alternatiba eraikitzeak. Hau da, onartzen du badela alternatiba erraustegiarentzat eta gainera prezio bat jartzen diote. Prezio hori erraustegirako aurreikusitakoa baino bederatzi aldiz txikiagoa da. Hori jakinik azalpenak eman beharko lituzkete.

ATEZ ATEKOA NOLA HOBETU

“Poligonoetako bilketa hor dago. Etxeetan biltzen den erreusean ere, ikusten da hobetzeko tartea badela”

N. Lau urteotan denbora nahikoa izango da erraustegia geratu eta moratoria ezartzeko?

J.M.R. Egoera normal batean, bide alternatiba bat abiatzeko lau urterekin denbora soberan dago. Hori erakutsi dugu Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolan. Eta orain Zumaian ere erakutsiko dute. Zoritxarrez Gipuzkoan egoera ez da normala. Hamar urte luze pasa ditugulako egoera berezi batean,



TRUKALARIAK TALDEKO KIDE ERE BADA BILDUKO UDAL ZINEGOTZIA.

batzuk etekina atera diote oraindik bizi dugun apartheid politikoari. Hamar urte ilunotan politikoki arazorik behar ez duen gai bat, hondakinena, konfrontazio iturrian bihurtu dute, arduragabeki politizatu dute. Sortu dituzten erresistentzia eta oposizioak gaingiditzen dugu arazo handiena. Lan pedagogiko handia egin behar da orain, gizartea normaltasunera bueltatzeko.

N. Usurbilen atez atekoa martxan da, baina esan izan da orde, zer hobetua badela. Zer asmo dituzue?

J.M.R. Adibidez, hor dago poligonoetako bilketa. Gaur herrian biltzen dugun erreusaren erdia baino zertxobait gehiago, poligonoetan biltzen da. Erreusa da hain zuzen ere, nagusiki gutxitu behar dugun kopurua. Etxeetan biltzen den erreusean ere, ikusten da hobetzeko tartea badela.

N. Nekazaritza eta ingurumen arloetan, beste zer egitasmo dituzue esku artean?

J.M.R. Hainbat gai daude. Lan talde bat, herrian nekazaritza jarduerak bultzatzeko landu beharreko lerro nagusiak zeintzuk diren aztertzen ari da. Aurreko legeintzaldian onartu zen udal baratzen ordenantza abiatu eta martxan jarri

zuten kutsadura elektromagnetikoaren inguruko ordenantza bukatu behar dugu. Usurbilgo natur guneak zaindu eta bermatzeko erabaki batzuk hartu behar dira.

N. Urriaren 16an III. Truke Azoka ospatuko da. Aurreko bi edizioek harre-ra oso ona izan dute, ezta?

J.M.R. Balorazioa positiboa da. Bigarren edizio bat burutzea pauso handi bat izan zen eta hirugarrena laster edukitzea are hobea. Sendotzen ari da ekimen hau, eta horrekin batera, ekimen horrek suposatzen duena, askoz baliabide gutxiago kontsumitzeko filosofiaren hedapenean. Azoka hauetan parte hartu eta haratago joatera animatzen ditut herritarak.

Ingurumen eta Nekazaritza Batzordea hilean behin biltzen da

Hil bakoitzeko lehen astelehene-tan burutzen da Ingurumen eta Nekazaritza Batzordea, 18:00etatik aurrera. Bilkurak irekiak dira, herriko talde eta norbanakoek parte har dezakete.

Urriaren 12an, Zubietan Euskal Jaia



ARGAZKIAN, IAZKO EUSKAL JAIA.

Jai egun izaten da urriaren 12a. Baina azken urte hauetan, egun hori Euskal Jaiaz gozatzeko baliatu izan da Zubietan. Aurtan ere, halaxe izango da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bazkarirako txartelak urriaren 9ra arte egongo dira salgai Barazarren. Helduek 20 euro, umeek 12 euro.

Goizetik, Josune eta Alaitzen trikitixa doinuek alaituko dute Zubietako Euskal Jaia. Kantu-jira ere iragarri da eguerdirako.

Bezperan, kirol ikuskizunak

Ekitaldiak bezperan hasiko dira ordea. Urriaren 11n pilota, pala eta joko garbi partidak egingo dira.

Urriak 11 asteartea

Gaueko 21:00etan

Joko-garbi partida:

Josu Aizpurua-Jon Huizi/

Joseba Aizpurua-Ugaitz Rezola

Nesken pala partida:

Maialen Iñarra-Ane Aranburu/

A. Zubimendi-Ainhoa Azpiroz

Eskez binakako partida:

Xabier Santxo-Fernando Goñi/

Iñigo Altuna-Juantxo Koka

Sarrera: 5 euro.

Babesleak: Usurbil eta Zubietako

Pilota Elkarteak.

Urriak 12 asteazkena

Zatoz eta gozatu jaiaz,

baserritarrez jantzirik!

10:00 Josune eta Alaitz

trikitilariak kaxkoan zehar.

10:00 Zubietako argazki

zaharren erakusketa.

11:30 Hamaiketakoa.

12:30 Kantu-jira.

14:00 Herri-bazkaria Araetan.

Txartelak salgai Barazarren urriaren

9ra arte: 20 euro (umeek, 12).

17:30 Goizaldi dantza taldearen

emankizuna.

Babesleak: Usurbilgo Udala, Kutxa.

Añarbe mankomunitatea

Añarbeko Uren Mankomunitatea berritu dute. Lehen presidente emakumea izango du erakundeak, Donostiako Udaleko zinegotzi Nora Galparsoro. Presidente orde berriz, Usurbilgo Udaleko Bilduko zinegotzi Jone Urdanpilleta izango da.

UEMan zuzendaritza berria

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak zuzendaritza batzorde berria osatu du. Aurrerantzean, Bergarako alkateorde Maren Belastegi (Bildu) izango da presidentea. Aralar, EAJ-PNV eta independenteak ere zuzendaritzan daude.

Kantu Taldearen oharra

Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoek ikasturte berria abiatu dute jada. Entseguen ordutegia aldatuko dute aurtengoan. 18:30etik 19:30era elkartuko dira aurrerantzean, asteartero eta betiko lekuan, Udarregi ikastolako musika gelan.

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

ARRANDEGIA PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Ikuskizun ederra eskaini zuten denek

Pilota eta pala txapelketetako finalekin hasi ziren San Praixku jaiak. Ostegunez, ezinduen pala erakustaldia egin zen. Eta horretaz gain, pala txapelketako finalak jokatu ziren. Emakumezkoen artean, Dolo Errasti eta bere alaba nagusitu ziren. Eta gizonezkoen artean, Imanol Esnaola eta Xabier Errasti, iazko irabazleak. Pilota Txapelketako finala, aldiz, ostiralean jokatu zen. Bi bikote hauek sailkatu ziren finalera: Intsausti (Añorga)-Mixelena (Arantza) batetik, Arrieta-Gorrotxategi (Hernani) bestetik. 22-17 izan zen emaitza, Hernaniko bikotearen alde.



AGINAGAKO PILOTA TXAPELKETAKO IRABAZLEAK
ETA FINALISTAK. GOIAN, GAZTETXOAK.

GOITIK BEHERA, PALA TXAPELKETAKO
IRABAZLEAK ETA FINALISTAK.

Aginagako Trainerila Txapelketako banderak etxeko egilea du, Mertxe Bengoetxea

Oihal on bat eta esku tre-beak aski dira, Aginagan asteburuan jokatu den trainerila txapelketako bandera, ikurrina eta Aginagako angulen sinboloak dituen, prestatzeko. Orain arteko bost edizioetakoak Mertxe Bengoetxeak, Orion bizi den aginagarriak egin ditu. Ibilbide luzeko margolari eta jostuna dugu bera. 15 urte daramatza klaseak ematen Aginagan.

NOAUA! Trainerila txapelketako banderak badu berezitasunik, margotu egiten baituzu, normalean josi egiten direnean?

Mertxe Bengoetxea. Dena eskuz margotua dago. Jendeak bordatu egiten du. Aginagako bost egin ditut, Oriorako gehiago egin ditut; ikastolentzat, Orioko sinboloarekin omenaldirako beste bi bandera... Aginagan estropada hauek antolatzen hasi zirenean, orain bost urte, neurekin gogoratu ziren. Kasu egin zidaten eta gustu handiz egin ditut. Gainera esan nien, nola ez nituen egingo, neroni aginagarria izanda. Hala hasi nintzen.

MERTXE BENGOTXEA

“Urtero joaten gara Aginagako txapelketa ikustera eta oso gustura egoten naiz”

N. Bost edizio ospatuta, zer sentitzen duzu trainerila txapelketaren amaieran, irabazleek zeuk egindako bandera astintzen dutenean?

M. B. Izugarrizko emozioa. Bandera Aginagan geratu dela jakinda, emozioa handiagoa izan da nire-



ARGAZKIAN, ARRAUNLARIAK ETA MERTXE BENGOTXEA BANDERAREN EGILEA.

tzat. Halere, Orion 49 urte daramatzat bizitzen, eta gogoratu behar dut badirela bi aginagar Orion.

N. Aginaga bere garaian ere Kontxan izan zen eta bi bandera ekarri zituen?

M. B. Neure anaiak ere jokatzeko zuten aginagarren artean.

N. Oriokoak eta Aginagakoak batera lehiatzen ikusita, zaila egingo zaizu urtero batzuen edo besteen alde egitea?

M. B. Bai. Baina ni aginagar sentitzen naiz eta bandera bertan gelditzen bada, nik nahiago. Urtero joaten gara Aginagako txapelketa ikustera eta oso gustura egoten naiz. Bozgorailuetatik txaloak ere jotzen dizkirate.

N. Bandera kontutan aditua zaitugu honez gero. Estropada preziazue-nak Kontxakoak izan ohi dira. Zeure ustez, bertako bandera ere bai?

M. B. Nik uste baietz. Aurten Kontxako Bandera amaitu zenean,

nesken bandera etorri zen lehena. Ukitu gabe ez naiz geratuko esaten nuen. Eta joan ginen gizona eta biok eta bai, zabaldu nuen eta ikusi nuen nola eginga zegoen, zer estilo zuen. Gustatu zitzaidan, bandera ederra da. Orioko Bandera ere oso ederra da, lagun batek bordatzen du.

N. Arraun denboraldia bukatu berria da, Oriok une zailak bizi ditu garai hauetan.

M. B. Oriok oso urte onak izan ditu, denok dakigun moduan. Kontxako Bandera gehien ekarritakoak oriotarrak dira. Baina une honetan beheraldi handia du. Halere, noizbait altxatuko dira berriz, zalego handia baitute.

N. Trainerila txapelketaz gain, San Praixkuetako zer beste hitzordura ez duzu hutsik egiten?

M. B. Senide guztiekin joaten gara, mezetara lehenik eta bazkaldu egiten dugu gero, San Praixku egunean. Hori da gure festetako ospakizun nagusia. Eta estropadak noski.

“Beti izan dut pinturarako zaletasuna”

NOAUA! Margolari eta jostuna zara. Lehen pausoak noiz eman zenituen?

Mertxe Bengoetxea. Beti izan dut pinturarako zaletasuna. Neska kozkorra nintzenean, eskola garaitan, marrazketa eta pintura, solfeo eta pianoa, eta josteta ematen genituen. Mojak galdetu zidan batean, amari esaiotzu zuk zer ikastea nahiko zenukeen. Niri gehiago gustatzen zitzaidan marrazketa eta pintura. Amak ordea josteta esan zidan. Baina beti izan dut pinturarako zaletasuna.

N. Geroago heldu zenion ordea pintaketari?

M. B. Seme-alabak ezkondu ostean pixka bat ikasten hasi nintzen. Eta handik berehalaxe, Aginagara erakustera etortzeko esan zidaten. Prestatua ez nengoela esan nien, eta ez nengoela gaitua. Talde mugatu batekin hasteko proposatu zidaten. Hamarrekin hasi eta gerora jendea gehitzen joan zen. Geroztik hortxe gaude.



15 URTE DARAMATZA PINTURA
KLASEAK EMATEN AGINAGAN.

N. Zaletasuna izatea nahikoa al da edo iaotasuna ere behar da?

M. B. Zaletasuna nagusiki. Bestalde, egindako lana beti hobetu litekeela pentsatu behar da. Hori lortzen duenak, lehenago edo geroago ikasiko du.

Erakusketa zabalik

Pintura klaseak ematen, Mertxe Bengoetxeak hamabost urte daramatza Aginagan. Gustura asko gainera, NOAUA!-ri adierazi dionez. Berak eta ikasleek eginiko lanak ikusteko aukera dago egunotan, apaiz etxean. Urriaren 7an eta 8an, arratsalde, 17:00etatik aurrera. Aian jaio baina Aginagan bizi den Jasone Irigoienek artelanak ikusteko aukera ere bada bertan.

Ikasturtea hastear

San Praixkuak amaitu ostean abiatuko du Mertxe Bengoetxeak ikasturte berria. Klaseak, astearte arratsaldero emango ditu, 16:00etatik aurrera. Arrate egoitzan izena eman daiteke. Bere bizilekuan, Orion ere saioak antolatzen ditu, bere esanetan, “denetarik egiten dut. Adibidez, akrilikoa, oleoa, egurra, portzelana”.

Aginaga nagusi

V. Trainerila Txapelketan

Kaikuk eta Oriok bina bandera eramanez, azkenean bai, aurtengoa etxean geratuko da, Aginagak irabazi baitu larunbat arratsaldean jokatu zen V. Trainerila Txapelketa. Ia zortzi minututan osatu zuten, Oria ibaian burutu behar zuten ibilbidea; 7:58 izan zen euren denbora marka. Atzetik sailkatu zen Hondarribia bi segundora, zazpi segundura Kaiku hirugarren, eta atzetik geratu ziren, Getaria, San Pedro, Orio, Zarautz eta Igeldo Herria.

Aginagako koadrila, pozarren

Markel Izagirre patroia, Erik Aranburu, Hodei Alkorta, Iñaki Errasti, Asier eta Gorka Puertas eta Andoni Peña, Javier Puertas prestatzailearekin batera pozarren agertu ziren proba amaieran.

Aginagako Jai Batzordekoen eskutik jasotako bandera hartu eta ederki astindu zuten, aginagarren emoziorako.

San Praixku jaiak, azken txanpan

URRIAK 7 OSTIRALA UMEEN EGUNA

10:00 Haurren jokoen hasiera.

13:00 Umeentzako bazkari

goxo goxoa.

16:30 Puzgarri ezberdinak denontzat.

Jarraian, Txokolate banaketa eta buruhandi gaizto gaiztoak.

21:00 Bertso afaria

Eliza Zaharrean: I.

Udarregi Sariketa (Bigarren kanporaketa Bota Punttubaren laguntzarekin), Eneritz Zabaleta (Baiona), Aitzol Barandiaran (Ataun), Ane Labaka (Lasarte), Ainhoa Agirrezaldegi (Elgeta),

Maialen Velarde (Zumaia),

Imanol Lizarazu (Igeldo).

Ondoren, Trikihotsekin dantzaldi ederra, astindu hankak eta gerriak.

URRIAK 8 LARUNBATA JAIEN AZKEN EGUNA

16:00 XXXI. Mus Txapelketa herrikoia (Izen ematea 15:30ean hasiko da).

18:00 Gorriti show-a.

20:00 Herri antzerkia ludotekan.

00:00 Abiba Dj.

Jarraian, Larra Dj Eliza zaharrean eguna argitu arte.

Ondoren nahi duenarentzat gosaria!

Udako oporren ostean, Gaztelekua ireki dute berriz

Ateak zabalik ditu berriz Gaztelekuak, udako etenaldia-
ren ostean. Lehen ekintzak bideratu dituzte jada, garai bateko Gure Pakea zahar egoitza kokatzen zen gunean. Hezitzaileek berri eman dutenez, “udaran egindako ekintzen argazkiak ikusten egon gara eta aurten gazteek egin nahi dituzten ekintzei buruz hitz egiten jardun gara”.

Hitzordu batzuk lotuak dituzte jada. “DBH 4-ko gazteek ikas bidaiaarako dirua ateratzeko Play Stationekin Sing Star txapelketa eta Pro txapelketa antolatu dute Gaztelekuan (urriaren 3 eta 10ean). Gaztelekuaren funtzionamenduari begira zenbait gairen inguruan (garbitasuna, arauak eta ondorioak, pelikulak, ekintzen proposamenak) erabaki eta ardurak hartzeko, ordezkari talde bat osatzeko asmoa dago”.

Urriak 20, ate irekien eguna

Bestalde, hezitzaileek Udarregi ikastolara joan eta gonbita luzatu ostean, talde berri bat ere parte hartzen hasi da aurten Gaztelekuan; DBH-ko lehen mailako ikasleak hain zuzen. Hurrengo pausoa, gazteon gurasoei gunea ezagutzeko aukera ematea da. Horretarako, ate irekien eguna antolatu dute, urriaren 20rako,



GAZTELEKUKO HAINBAT KIDE, DONOSTIARA EGINDAKO IRTEERA BATEAN.

arratsaldeko 18:00etan. “Bertan Gaztelekua ikusi, proiektua eta hezitzaileak ezagutu, ping pong-ean jolastu, beste gazteek egindako ekintzetako argazkiak ikusi, DBH 1-eko gazteen argazkiak (ikastolako aurkezpena eta Gaztelekuan jolasean) ikusteko eta edozein zalantza edo kezka argitzeko aukera izango dute”, adierazi dute hezitzaileek. Informazio gehiago eta harremanetarako: gaztelekua@usurbil.net.

Gaztelekuko ordutegia

Astelehenetan

16:30-18:00 DBH 3-4. mailakoentzat eta 18:00-19:30 artean denontzat.

Ostegunetan

16:30-18:00 DBH 2. mailakoentzat eta 18:00-19:30 artean denontzat.

Larunbatetan

16:00-17:30 DBH 1. mailakoentzat eta 17:30-19:00 artean denontzat.

Autorik Gabeko Eguna

Agian norbaitek pentsatu du aurten ikastolan ez dugula Autorik Gabeko Egunean ezer egin ikasleok. Ba ez, ez dugu ezer egin guk ez dugulako autorik erabiltzen, ikasleok ez dugulako autorik gidatzen, hobe esan. Gurasoak, irakasleak, aiton-amonak... zarete auto erabiltzaileak, gidariak eta, zergatik ez esan, kutsatzaileak. Beraz, aurten ikastolara gerturatzeko errepideak moztu dira Autorik Gabeko Egunean. Guraso, irakasle eta gainontzeko auto gidariak konTURATU zaitezten askotan zentzurik gabe erabiltzen duzuela autoa, ikastolatik gertu bizi diren ikasleak atariraino eramanez, batzuetan euri tanta batzuen aitzakian, besteetan lanerako bidean harrapatzen zaituztelako... Hain urruti geratzen al da Santueneatik ikastola?

Edo Kalezarretik? Edo Etxealdiatik? Gure gurasoei galdetuz gero nola joaten ziren eskolara denek erantzun berdina ematen dute, OINEZ.

Guk, DBHko ikasle askok, eta irakasleren batek, bizikleta erabiltzen dugu ikastolara gerturatzeko eta egia esan behar bada, ikastola aurrean daukagun bizikletak uzteko lekua txikia geratzen zaigu askotan. Beraz, aukera hau aprobetxatu nahi dugu Udaletxeko agintariari eskatzeko bai ikastolan eta bai herriko beste zenbait tokitan bizikletak uzteko lekuak jartzeko.

Bestalde, helburua autoa ahalik eta gutxien erabiltzea bada, herrian bide gorriak jarri beharko liratekeela iruditzen zaigu, auzoetatik (Zubietan, Santuenea, Kalezar, Txokoalde,



BIZIKLETAK NAGUSI DIRA UDARREGIN.

Aginaga...) herri kaskoraino eta herri kaskoan ere bai.

Bukatzeko, aipatu nahi genuke ikastolara oinez edo bizikletaz etortzeak ez lukeela egun bakarreko ekimena izan behar baizik eta ikasturte osoan egin beharko genukeen zerbeit.

DBHko ikasleak.

Datorren astean Salvatore parrokian, Olimpio Medori organojolearen kontzertua

Antzinako musikan aditua da Olimpio Medori. Organo ikasketak, hein handi batean, estilo horretan sakondu ditu. Datorren astean Usurbilen eta Bergaran arituko da. Ibilbide luzeko musikaria, Europan eta Hego Amerikan emanaldi asko eskaini ditu. Hauxe da eskainiko duen errepertorioa.

E. Friedrich Eduard Richter (1808-1879)
Phantasie und Fuge für die Orgel Op. 19
(Allegro moderato-Adagio-Allegro vivace-Fuga)

Gustav Adolf Merkel (1827-1885)
Sonate Nr. 2
I. Maestoso
II. Adagio
III. Introduction und Fuge

Vincenzo Antonio Petrali (1832-1889)
Andante per l'Elevazione
Sonata N°2 (4 Sonate per il Vespere-tik hartua)



GAUR EGUN, FLORENTZIAKO SAN FILIPPO NERI ELIZAKO ORGANOJOLEA DA.

Marco Enrico Bossi (1861-1925)
Chant de soir Op. 92 Nr. 1
Thème et Variations Op. 115

Urriak 14 ostirala, 20:00etan.
Salvatore parrokian.
Organo jolea: Olimpio Medori.

Diruz lagunduko dira aisialdi ikastaroak

2011/12 ikasturtean aisialdi ikastaroren bat egiten duten gazteek dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute. Zehazki, hauek dira Udalak diruz lagunduko dituenak: haur eta gazteen aisialdirako begirale ikastaroa edo aisialdiko zuzendari ikastaroa.

Bete beharreko baldintzak

Deialdia 2012an argitaratuko da baina Udala hasi da eskaintza honen berri ematen. Baldintza batzuk bete behar dira:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- 18 urte baino gehiago izatea.
- Aisialdirako begirale ikastaroa edo aisialdirako zuzendari ikastaroa egitea (teorikoa eta praktikoa).

Diru kopuruak

Diru-kopuruari begiratuta, hauek dira Udalak eskainiko dituen laguntzak:

- Matrikula kostuaren %50eko dirulaguntza emango du Udalak, muga hauekin: aisialdiko begirale ikastaroan gehie-



INFORMAZIO GEHIAGO EUSKARA
ZERBITZUAN JASO DAITEKE.

nez ere 250 euro, eta aisialdiko zuzendari ikastaroan, gehienez ere 150 euro.

Ikastaro hauen matrikulak garai honetan izaten direnez, Usurbilgo Udalak ikastaroak egitera animatu nahi ditu herriko gazteak. Eta dagoeneko animatu direnek, jakin dezatela dirulaguntza horiek dituztela eskura.

Ikastaro desberdinei buruzko informazioa edo diru-laguntza hauei buruzko argibide gehiago udal Euskara Zerbitzuan jaso daiteke edota honako telefono zenbakian: 943 371 999.

Abiatu da Auzolan proiektua

Antolatzaileak pozik dira, aste-buruan Usurbilen burutu diren Auzolan Topaketen lehen edizioak izan duen harrerarekin. Balorazio baikorra egin dute estreinako ekimen honen inguruan, alde zuzenetik finkatua zuten helburua bete baitute; Auzolan proiektua jada, martxan da. Berri eman dutenez, jardunaldien amaieran bilera inprobisatu bat burutu zuten topaketetako parte hartzaileek, eta proiektua martxan jartzea erabaki.

